

Euskal emakume eszentrikoei esker

aurten, martxoaren 22an Karrantzatik abiatuko den Korrikak euskal emakumeari eginen dio omenaldia. Otsailaren 24an, Donostiako Kursalean herrialde eta adin guztietako neskatiko, neska eta andreek omentze hunkigarria antzeztu zuten.

Edurne Brouardek ahotsa paratu zion Korrika 15aren manifestuari: “Garai desberdinetan zehar, emakumeok izan gara, euskararen aurka izan diren legeei aurre eginez, gure hizkuntza etxeetan gorde, atxiki eta ahoz aho iraunarazi dugunak. Dela gerra garaian, dela baserrian, dela itsasaldeko herrietan gizonak kanpoan zeudela... euskal emakumea izan da, belaunaldiz belaunaldi, gotorleku garrantzitsua. Berak bermatu du gaur arteko transmisioa, eta ezkutukolan hori ere azalarazi eta aldarrikatu nahi dugu”.

Ez da lehendabiziko aldia euskararen ondorengoengantzean eta euskal kulturaren iraunaraztean herri honetako emakumeek egindako ahalegina aipatu eta goraiatu dena. Gogoan dut 2005ean Euskalerria Irratiak orain berrogei urte, frankismo garaian bete-betean, Iruñean euren seme-alabak euskaraz hazi eta hezi zituzten emakumei Larreko Saria eman ziela. Emakume horietako hamahiru andre adindu bildu ahal izan zituzten omenaldi ekitaldirako eta andre horien duela berrogei urteko oroitzapenek hunkitu ninduten. Euskara erabat zokoraturik, *cristianoz* egitera konpultsiboki behartzen zituen Iruñeko gizarte haren mesprezu, higuin eta irainen aitzinean ama euskaldun tematsuek familia esparruan euskarari eutsi eta umeak zabaldu berria zen ikastolan eskolatzeko irmo jokatze horrek barrena ukitu zidan.

Emakume horien oroitzapen eta lekukotasunak etorri zitzaizkidan gogora Edurde Brouardek irakurritako manifestua entzundakoan. Metafora ederra iruditu zitzaidan erabili zuena: Eus-




MIKEL SAIZ

kal Herriko mendebaldean, Karrantzako Poza-lagua izeneko kobazuloan, ohiko estalaktita eta estalagmiten artean, estalaktita berezi-berezi batzuk ageri dira: estalaktita eszentrikoak. Egitura horiek, beste lekuetan ez bezala eta beste inon baino gehiago, goitik behera erori beharrean, ezker-eskuin zabaldu eta sare moduko bilbe egitura ikusgarrietan hedatzen dira. Elkar jo gabe, nork bere nortasunari eutsiz, baina, sarea behar den moduan egituratzeko, ondokoren laguntza eta itzalaren babesean. Estalaktita horiek bezala, ezker-eskuin zabaldu eta, euskaraz hitz eginez, herri bat osatu dugu euskaldunok.

Eta estalaktita eszentrikoen antzera, gehiengoren moldeetatik at jokatu zuten euskal andreek orduan inguru nagusi-nagusiki erdaldu eta erdaltzalean harremanak euskaraz egiteko tokia bilatuz, goitik behera heldu zen erdararen logika, behar eta inertzia men egin beharrean, ahal zela eta ahal zen guztietan horri izkin eginez. Halakoa izan zen emakume horien eszentrikotasuna!

Egun ere, anitzetan Euskal Herrian euskaldun gisa bizi nahi izateak eszentriko bokazioa eskatzen du. Aldeak alde, egun ere euskal emakumeek segitzen dute izaten eszentriko samarrak, erdararen inertzia hain aise makurtzen ez zaizkionak. 201ean Euskal Herrian egindako kale neurketak -2006an egindakoaren datuak oraindik ez ditugu ezagutzen- emakumeen erabilera handiagoa agertu zuen ia leku guztietan, eta datuak aztertu zituztenek euskararen erabileraren igoeran emakumeek izan zuten protagonismoa aipatu zuten.

Eszentrikoak behar ditugu euskal emakumezkoak, ezker-eskuin eta eskuin-ezker beraien harremanak euskaraz hedatzen dituztenak, oraindik, familian bezala hezkuntza sisteman ere, euskara belaunaldi berriei emateak nagusiki emakumei loturik segitzen baitu. **n**



«
Eszentrikoak behar ditugu euskal emakumezkoak, ezker-eskuin eta eskuin-ezker beraien harremanak euskaraz hedatzen dituztenak, oraindik ere euskara belaunaldi berriei emateak nagusiki emakumei loturik segitzen baitu
»